

2023ko urriaren 10an. Ezohiko Batzar Nagusia / Resumen Asamblea General extraordinaria. 10 de octubre de 2023.

2023ko urriaren 10ean egindako ezohiko Batzar Nagusian Kontseilu Errektoreak proposatutako erabaki guztiak onartu ziren.

Esanguratsuenak nabarmentzen dira:

Eroski Koop.E-ren egoerari buruzko informazioa eta obligazioak jaulkitzeko proposamena. Ahalmenak eskuordetzea.

Gehiengoz onartzen da, kontrako botorik gabe, 600 milioi eurora arteko obligazioen jaulkipena, bai eta obligazioak jaulkitzeko erabakia garatu, interpretatu eta betearazteko Kontseilu Errektoreari dagokion eskuordetza ere.

Ahalmenak eskuordetzea.

Gehiengoz onartu da, kontrako botorik eman gabe, Kontseilu Errektoreari espresuki ahalmena ematea edozein ahalduni eskuordetzan eman dakizkiokeen ahalmenak eskuordetzan emateko aurreko erabakien ondorioz, bai eta finantzaketa-eragiketa gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketa eta izapide guztiak egiteko beharrezko diren ahalmenak emateko ere, beharrezko agiri guztiak sinatuz, bai eta Eroski eta taldeko beste edozein sozietate ordezkatzeko ere.

Hartutako erabakiak publiko egiteko ahalmenak eskuordetzea

Ohiko erabaki formala da Batzar guztietan, eta ahalmena ematen die Kontseilu Errektoreko kide guztiei eta Legelari Aholkulariari, horietako edozeinek Batzar Nagusian hartutako erabakiak gauzatu ahal izan ditzan.